



## Gurasoen egitekoa ikastolan

Gurasoen txokoa Patxi Zubizarreta Jakintzan  
Zertan gabiltzan Neus Sanmartí gurekin



# agenda

## URTARRILA

### HAUR HEZKUNTZA

San Sebastian eguneko danborrada.

### LEHEN HEZKUNTZA

LH1: Ekaingo kobazulora.

LH 6: D elikatuzera.

### DBHO

Batxi1: Uretako sorospena.

Irizarra.

## OTSAILA

### HAUR HEZKUNTZA

4 urtekoek 'Txirritx zirkoaren' antzezpena 2 eta 3 urtekoentzat.

5 urtekoek 'Makilakixki' ipuinaren antzezpena 2 eta 3 urtekoentzat.

### LEHEN HEZKUNTZA

LH2: Albaola Itsas Faktoriara.

LH 3: Gasteizko Katedralera.

LH4: Eroskira.

### DBH

DBH 2: Hezkidetza.

### DBHO

Artxibategi zibilera.

## OROKORRA

Inauteriak.

## MARTXOA

### HAUR HEZKUNTZA

Txiki parkera irteera.

### LEHEN HEZKUNTZA

LH1: D'elikatuzera.

Barandiaran museora.

LH2: Jubilatuen etxera.

Donostiako Planetariumera.

LH4: Arriarango urtegia.

LH 5: Larraitzera.

LH 6: Oiangura, zuhaitzak landatzera.

### DBH

DBH 1: Albaola museora.

DBH 2 : Ekogunera.

Zerainera eta Segurara.

DBH 3: Eskiatzera.

Zuhaiztikoekin jolasaldia.

DBH 4: Erleak eta polinizazioa.

### DBHO

DBHO:1

Martxoan, Eliz Barrutiko artxibategira.

Martxoan, Hernaniko Oronara.

Martxoan, Bizkaiko Portura.

Martxoan, *Oriente*.

### DBHO 2:

Martxoan, Donostiako Ondare arkitektonikoa ezagutzera.

Martxoan, Hernaniko Oronara.

Martxoan, Bizkaiko portura.

Martxoan, CAFera.

Martxoan, biziraupen bazkaria.

## OROKORRA

Kultur Astea.

**AMAIA AYERRA**  
Jakintza ikastolako zuzendaria



## Sentitzeko beharra

Badira egun batzuk Patxi Zubizarretarekin tertulian aritu ginela. Giro goxoa aritu ginen literaturaren magiaz hitz egiten, eta une hark, egun hartan entzun, ikusi eta sentitu nuenak utzi du nerean hazia. Ukitu ninduen, baita hunkitu ere. Zenbait testuk, istoriok eta gertaerek pizten dizkiguten emozioei bueltaka ari naiz, eta eskolako ariketa bat balitz bezala, sortutakoari zentzumenekin lotura ematen: zein kolore ipiniko niokeen pentsatuz, zein musika aukeratu, zein usain, zein zapora, zein taktu...

Gizakiok zentzumene bidez jasotzen dugu kanpoko informazio guztia, eta badirudi jasotzen duguna oharkabean bizi dugula. Dena presaka eta azkarregi doakigun honetan, tamalez, bereizten gaituenak balioa galdu du, eta detaile txikienei ere ez diegu erreparatu. Begirada bat, laztan iheskor bat,

hasperen bat, usain gozo bat... agian hor dago muina. Neurohezkuntza deritzon korrante zientifiko batek dio emoziorik gabe ez dagoela ikaskuntzarik. Gure barrenean gordetzen ditugun informazio, eduki eta bizipen guztiek behar dute emozioa sustraitzeko eta gurean geratzeko. Baina ematen al diegu emoziorik gure jardunari? Erreparatu al diegu gure zentzumenei? Lanean, familian, lagun artean zer leku dute emozioek?

Ariketa simple bat egitera gonbidatzen zaituztet. Denbora gutxi behar duen ariketa, material gutxi eta diru beharrik ez duena. Aukeratu une bat, momentu bat, pertsona bat, egoera bat... eta irudikatu kolore batekin, jar iezaiozu musika, usaina, baita zaporea eta fereka ere. Ireki ditzagun begiak, belarriak, sudurrak, ahoak, eskuak eta utzi diezaigun gorputzari sentitzen!

## Lilatoia

Urte asko dira Martxoaren 8aren inguruan emakumearen ahalduntze bideak jorratzen hasi zirela.

Prozesu horietako bat kirol munduarekin ere lotu nahi izan da, ahalduntze ikuspegi integral batetik beti ere. Eta hor du bere oinarri eta sustraia martxoaren 6an egin zen Lilatoiak. Oraingo honetan, Jakintza Ikastolako ia 40 emakumek parte hartu dugu. Goiz samar jaiki, hotzari aurre egin eta 5 kilometro korrika egin ondoren, jai giroan amaitu dugu eguna. Hurrengo urtean, gehiago!!



**La necesidad de sentir.** Desde el encuentro literario con Patxi Zubizarreta no paro de pensar en las emociones que nos hacen sentir algunos textos, historias o situaciones y, como si fuera un ejercicio, me propongo crear una conexión entre todo lo que hago y los sentidos. En el día a día no prestamos atención a los detalles, como una mirada, un suspiro, un aroma... La neuroeducación no entiende el aprendizaje sin emociones, porque sin emociones la información, el contenido o las vivencias no llegan a nuestro interior. Por eso, os invito a elegir un momento, una persona, una situación... y a ponerle color, música, sabor, olor, una caricia... En definitiva, dejemos que nuestro cuerpo sienta.

**Lilaton.** Este año hemos participado cerca de 40 mujeres de Jakintza en la Lilaton.

# PATXI ZUBIZARRETA JAKINTZAN

Liburutegia berrizetik harago, irakurzaletasuna eta literatura bultzatu nahian gabilta Jakintza ikastolan. Horretarako, hainbat lanketa egiten ditugu gela barruko egunerokotasunean. Ikastolan, ordea, eskola komunitate osoarekin jardun nahi genukeenez, joan den urtean ikasle, irakasle zein gurasoei zuzenduriko ekimen batekin hasi ginen. Irakurgai bat proposatzen

dugu, eta ondoren idazlearekin batera tertulia edota lanketa egiteko aukera eskaintzen dugu.

lax Danele Sarriguarte etorri zen *Erraiak* obraren inguruan hitz egitera. Aurtan, berriz, Patxi Zubizarretaren *Laranja bat zaborretan* eleberria izan dugu irakurgaia. Otsailaren 18an izan genuen gure artean, eta saio eder bezain goxoa egin genuen Jakintzako liburutegian ordiziarraren azken nobelaren bueltan. Zubizarreta erabat biluztu zen, eta idazle batek izan ditzakeen sekreturik ezkutenak aitortu zizkigun.

Esaterako, bere liburuetarako istorioak nondik sortu izan dituen azaldu zigun; baita erreferentziako autoreak zein dituen ere. Bestalde, bere idazketa prozesuaren xehetasun guztiak argitu zizkigun idazleak. Liburuaren jatorrizko alea ere erakutsi zigun, eskuz idatzitakoa. Saioa biribiltzeko *1948ko uda* obraren edizio berritua eman zigun oparitan liburutegirako. Dena den, oparirik ederrena idazlearen pasioa bera izan genuen. Saio zoragarria oparitu zigun Patxi Zubizarretak!



## UDALEKUAK

Oraindik udaberria ez zaigu iritsi eta udan pentsatzen?

Ba, bai. Jadanik eskura dezakezue aurtengo udalekuei buruzko informazio guztia.

Nonnahi eta zernahi, era guztietako aukerak dituzue: udaleku irekiak, mendia eta pilota, itsaso eta kultura, eusk(h)ara mugara, ingeles udalekuak, surfa, udaleku ibiltaria, gazte egonaldiak, *Elkarrekilan* Zuberoan, atzerriko egonaldiak...

Informazio gehiago nahi izanez gero, zuzendu ikastolako idazkaritzara edo bestela begiratu orri hauetan:

[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus) (aisialdia atala)

[www.aisialdia.eus](http://www.aisialdia.eus)

Animo eta aurrera!!



### El escritor Patxi Zubizarreta en Jakintza.

Además de renovar la biblioteca, la ikastola Jakintza quiere fomentar la lectura y la literatura. Lo hace dentro de las aulas, y también con el resto de la comunidad escolar. El curso anterior se puso en marcha un programa de tertulias literarias en el que se propone la lectura de un libro que luego se comenta con el propio autor. El año pasado leímos *Erraiak* e invitamos a su autora Danele Sarriguarte. Este año hemos elegido la obra *Laranja bat zaborretan* de Patxi Zubizarreta. El escritor ordiziarra estuvo con nosotros el 18 de febrero y en el transcurso de una agradable tertulia nos desveló algunos de sus secretos, como el origen de las historias de sus libros, cuáles son sus autores de referencia o cómo es su proceso de escritura. Además, nos enseñó el manuscrito original del libro y nos regaló un ejemplar de la nueva edición de *1948ko uda* para la biblioteca. Pero lo mejor del encuentro fue la pasión que nos transmitió el escritor.

**Colonias.** Todavía no ha empezado la primavera y ya estamos pensando en el verano. Ya está disponible la información sobre las colonias, con una amplia y variada oferta: colonias abiertas, monte y pelota, mar y cultura, *eusk(h)ara mugara*, inglés, surf, estancias juveniles, colonias itinerantes, *elkarrekilan* en Zuberoa, estancias en el extranjero... Más información: secretaria del centro, [www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus), [www.aisialdia.eus](http://www.aisialdia.eus).

# ZEINTZUK DIRA GURASOEN FUNTZIOAK IKASTOLAN?

EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza fakultateko bi irakasle gurasoek eskola barruan duten egitekoaz ikerketa bat egiten ari dira partaidetza prozesu baten bidez. Beharrak eta kezkek antzeman dituzte, eta orain gurasoen funtzioen dokumentua prestatzen ari dira. Ikastola instituzio sozial bat dela argi dute ikertzaileek, eta horri lotuta, ikastetxearen eta herriaren artean dagoen lotura aztergaien artean izan dute.



Abiapuntu nagusi bat du Joxe Amiama eta Javier Monzon EHUko Hezkuntza fakultateko irakasleak Jakintza Ikastolan egiten ari diren ikerketak: eskolak lurraldearekin, herriarekin lotuta egon behar duela, ez dela airean dagoen erakunde bat eta funtzio sozial bat ere betetzen duela. «Eskola instituzio sozial bat da, eta bizi den testuinguruarekin lotuta dago. Komunitate handi baten barruan kokatutako beste komunitate bat da, eta ikasleek, irakasleek, gurasoek, langileek... osatzen dute».

Castelloko (Herrialde Katalanak) Unibersitat Jaume I.a eta Murtziako

Unibertsitatearekin lankidetzan *Lurraldean txertatutako eskola* ikerlanean murgilduta daude Amiama eta Monzon. Hiru unibertsitateak eskola bat edo birekin harremanetan jartzeko konpromisoa hartu zuten, ikerketa lerro jakin bati lotuta: ikastetxe bakoitzak zer estrategia erabiltzen dituen bere testuinguruarekin harremana mantentzeko.

EHUren kasuan, Amiamak Ordizia Hiri Hezitzailea proiektuaren berri bazuen, eta «planteamendu ireki» batekin etorri zen Jakintzara: jakin nahi zuten eskolak zer egiten duen

herriarekin lotuta, eta herriak eskolarekin. «Horrelako dinamikek testuingurua eta eskola biltzen dituzte, eta guretzat oso interesgarria da ikertzea ea hau dena ikastetxearen proiektuaren barruan sartuta dagoen», nabarmendu du Amiamak. Gisa honetako ikerketa bat garatzen duen Euskal Herriko ikastetxe bakarra da Jakintza.

## Gurasoen partaidetza

Planteamendu horri lotuta, zer gai landu, hobetu eta hausnartu nahi zuten galdetu zioten EHUko irakasleek

ikastolaren zuzendaritzari, eta antzeman zuten behar nagusia eskola mailan guraso ordezkarien partaidetza zela. «Zuzendaritzak gaiari heldu zion, uste baitu gurasoen partaidetza oso oinarritzak dela eta hor hutsune inportante bat dagoela, batez ere gurasoen funtzioen inguruan».

Gurasoen partaidetzaren inguruan eragiten duten faktoreak aztertu ziren lehenik. Hiru hauek dira

nabarmenenak: **Pertsonalak** (borondatezko jarrera falta, jende berria erakartzeko zailtasuna, egoera pertsonal oso ezberdinak, ikuspegi komunitarioaren falta...);

**Harremani lotutakoak**

(guraso ordezkari izateak irakaslearekin dakarren harremana, juntako gurasoekin harremanak...); eta

**antolakuntza faktoreak**

(gurasoen partaidetza eremu ezberdinetan, partaidetza alorrean sortzen diren zalantzak, guraso ordezkarien funtzioen denifizio falta, erabakiak hartu aurreko kontsulta prozesuak

bideratzea...)

**Analisia, hiru fasetan**

Lanketa horrekin 2014/15 ikasturtean hasi ziren EHUko irakasleak, eta «printzipioz» hiru fase izango ditu, Amiamaren esanetan. **Aurrenekoan** eskolako guraso ordezkari batzuk parte hartu zuten, eta fitxa batzuk bete, haien zereginen zerrenda bat egin zuten –ekintza zehatz batzuekin lotuak eta bilerekin lotuak–, alderdi kuantitatiboak eta

kualitatiboak aipatuz. «Fitxa guztiak hartu, eta blokeka antolatuta genituen, gero funtzioak atera ahal izateko».

**Bigarren fasea** aurtengo otsailaren 15ean egin dute. Berrogei gurasotik gora bildu ziren –gela bakoitzeko bina ordezkari–, eta ikerketa parte-hartzaileen teknikak erabiliz (*post-iten* teknika, kasurako), gurasoen

funtzioak zehazteko beste urrats bat egin zuten. «Babesari buruz ere hitz egin genuen. Zer babes jasotzen duten gurasoek, lan bat errazteko zer babes behar duten pentsatzea... Gaur-gaurkoz fase honetan gaude. Datu horiek jaso ditugu, eta orain landu egin behar ditugu».

Amiamaren esanetan, *post-iten* metodoa ez da arruntena horrelako prozesuetan. «Partaidetza polita delako erabili dugu. Dinamikak berak espektatiba baikorrak sortzen ditu, gurasoen arteko komunikazioa errazten du. Gurasoak herritik edo bistaz elkar ezagutzen dute, baina denona eta denontzat izango den eskola bat nahi bada, familien arteko atxikimenduak eta loturak areagotu egin behar dira».

Egindako lana gurasoei eta ikastetxeari itzultzea izango da **hirugarren fasea**. «Dokumentu bat aterako dugu gurasoen ikuspuntutik zer funtzio betetzen ari diren, zer babes mota dauzkaten eta zer behar dituzten zehaztuz. Garrantzitsua da eskolara dokumentu bat itzultzea, beraiek aipatu dutena kontuan hartu dela adierazten baitu».

Ispiluaren teknika erabiliko dute itzultze lan hori egiteko. Jasotako datuen berri emango diete gurasoei, hausnarketa egin eta norberak bere erara interpreta ditzan. Lan hori da egiteko dagoena.

**Boterea partekatu**

Azken urrats hori gauzatzeko badago ere, Amiamak argi du ikerketa parte-hartzailea «prozesu bat» dela, ez dela bukatzen, eta prozesuek beti eskatzen dutela aurrera jarraitzea. Iaz egindako *focus group* saiotik ondokoak nabarmendu ditu EHUko irakasleak: **Ezjakintasuna** (gurasoek ez dutela jakiten zer egin behar duten eta zer ez); **Boterearen banaketa** (partaidetza botereari lotuta dago, eta norberak sentitzeko zerbaiten



**JOXE AMIAMA**

«Eskola instituzio sozial bat da, eta bizi den testuinguruarekin lotuta dago. Komunitate bat da, beste komunitate baten barruan»

«Denona eta denontzat izango den eskola bat nahi bada, familien arteko atxikimenduak eta loturak areagoatu egin behar dira. Landu dugun dinamikak komunikazioa errazten du»

«Entitate guztietan beti batzuk daukate boterea, eta hori banatzea kosta egiten da. Fase horretan gaude, erabakitzeo ahalmen hori noraino bai eta noraino ez zabaldu hausnartzen»

## Ikerketaren lau helburu orokorrak:

Castellongo Jaime I.a Unibertsitateak, Murziako Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak partekatzen duten *Lurraldean txertatutako eskolak* ikerlanak lau helburu zehatz ditu. Joxe Amiak argi utzi nahi du ikerketa egiteko helburu orokorrak direla, baina tokian tokirako egokitu dituztela, Jakintzan kasurako:.

- 1. Eskoletan parte-hartze estrategiak ikertzea**, norberaren esperientzien kontakizunean oinarrituta. «Jakintzan gurasoen partaidetza landu da, eta ordezkariak/funtzioak bikoitza aztertu dira».
- 2. Autoebaluaziorako erramintak garatzea**, ikastetxeen parte-hartze estrategiak hobetzeko. «Jakintzan ez dugu halakorik egin».
- 3. Diagnostiko sozial parte-hartzailea helaraztea** ikastetxeei. «Jakintzan hiru esperientzia landu ditugu: gela barrukoa, eskolakoa eta herri mailakoa».
- 4. Orientazio pedagogikoak eskaintzea**, parte-hartzea hobetzeko. «Jakintzan bilerak egin ditugunean hainbat gauza erraztu dizkiegu».

parte dela, norberaren hitzak balio duela sentitu behar du);

**Gurasoen hitza aintzat hartu** (gurasoak hausnarketa horretan daude, sentipena dutelako erabaki garrantzitsuak hartzeko momentuan beraien hitza ez dela horrenbeste kontuan hartzen).

Botere banaketaren gaia «delikatua» dela adierazi du Amiak: «Entitate guztietan beti batzuk daukate boterea, eta hori banatzea ez da erraza, kosta egiten da. Fase horretan gaude, hausnartzen erabakitzeke ahalmen hori noraino bai, noraino ez, zer babes, zer eskatu, zer ez eskatu...».

Haren esanetan, Jakintza Ikastolako zuzendaritza «ausarta» izan da gurasoen partaidetzari eta botere banaketa horri helduan. «Helburua gurasoen partaidetza hobetzea da, eta zuzendaritzak honakoa esan dio bere buruari: 'Goazen ikerketa bat egitea, eta ea zer ateratzen den funtzio aldetik,

babes aldetik...'. Ikastolako zuzendaritzak argi dauka gurasoek garrantzia handia dutela eskolaren organigraman, eta urrats hori egitea ausarta izatea da».


## Hobekuntzak proposatu

Behin fase guztiak gaudituta, zentroari hobekuntza proposamenak helaraztea izango da hurrengo urratsa. «Dokumentua prestatuko dugu, baina egingo dugun hurrengo saioan egingo den galderetako bat izango da partaidetza nola landuko dugun, nola bultzatuko dugun».

Era berean, egindako proiektuaren hedapenerako materiala ere prestatuko dute.

«Azken batean, eskola batean gauza asko egiten dira, baina idazteko denborarik ez da hartzen egunerokotasunean. Gu laguntza hori emateko eta funtzioak diseinatzeko eta errepasatzeko gaude, garbi baitauekagu unibertsitateak berak ere funtzio sozial hori bete behar duela».

Ikerketa hau egiteko Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du EHUko Hezkuntza fakultateak ikerketa eta garapena sailetik. «Unibertsitateak I+D hori (Ikerketa eta Garapena) edukitzea garrantzitsua da. Honek prestigioa ematen du, publikazioari eta egindako lanaren hedapenari begira», ondorioztatu du Amiak.





## Definición de las funciones de los padres y madres

Los profesores de la Facultad de Educación de la UPV Joxe Amiana y Javier Monzón están llevando a cabo un estudio sobre las funciones de los padres y madres dentro de la ikastola, partiendo de la premisa de que la ikastola debe estar incluida en el territorio, el pueblo, porque tiene un cometido social. «La escuela es una institución social, es una comunidad dentro de otra comunidad, y está formada por alumnos, profesores, padres y madres...».

Esta investigación se enmarca dentro de un proyecto de colaboración entre la UPV, la Universidad Jaume I de Castellón y la Universidad de Murcia en torno a la *Escuela incluida en el territorio*. Cada universidad se ha puesto en contacto con uno o dos centros educativos para analizar las estrategias que desarrolla cada uno de ellos para mantenerse conectado con su entorno. En el caso de la UPV, Amiana llegó a Jakintza a través del proyecto Ordizia Hiri Hezitzailea con un planteamiento muy abierto: conocer qué hace la escuela por el pueblo y qué hace el pueblo por la escuela. Jakintza es el único centro de Euskal Herria que participa en este estudio.

En el desarrollo del estudio, la dirección de Jakintza comunicó a los investigadores que analizaran la participación de los padres y madres a nivel escolar, ya que considera que es una participación muy básica, y es cierto que hay aspectos a mejorar, sobre todo en torno a sus funciones. Primero se analizaron los factores que inciden en esa participación: personales (falta de voluntad, dificultad para atraer gente nueva, situaciones personales muy distintas...), relacionales (ser padre-madre representante no mejora la relación con los profesores, escasa relación con los padres-madres de la junta...) y organizativos (falta de definición de las funciones de los padres-madres representantes...).

El estudio se puso en marcha en el curso 2014/15 y consta de tres fases. En la primera, participaron dos padres-madres representantes, con los que se elaboró una lista de sus quehaceres en torno a reuniones o actividades concretas. La segunda fase se ha desarrollado este 15 de febrero: se reunió a más de 40 padres-madres y mediante la utilización de técnicas participativas, se dio un paso más en la definición de sus funciones. En aquel encuentro se habló, entre otros, del apoyo que reciben a la hora de llevar adelante un trabajo. Ahora se están analizando todos los datos y la información recabada y se elaborará un documento que se presentará a la ikastola y a los padres y madres en lo que será la tercera fase del estudio. En el documento se recogerán las funciones que los padres-madres creen que están desarrollando, del apoyo con el que cuentan y las necesidades que detectan. Aunque esta última parte está aun sin realizar, Amiana tiene claro que este estudio participativo es «un proceso» y que como tal, tiene que tener continuación. Por otro lado, ha destacado algunas conclusiones obtenidas hasta ahora: el desconocimiento que tienen los padres y madres sobre de lo que deben hacer y no deben hacer, la relación entre el reparto del poder y la participación y el sentimiento de no ser tomados suficientemente en consideración. En este sentido, ha subrayado la valentía de la dirección de la ikastola al abordar estos temas relativos al reparto del poder y a la participación de los padres y madres, y que lo ha hecho porque considera que son una parte muy importante en el organigrama del centro. Una vez concluidas las tres fases, se harán llegar propuestas de mejora al centro, aunque en la siguiente sesión plantearán también cómo van a trabajar la participación de los padres-madres y cómo van a impulsarla.

# BOGA-BOGA MARINELA!

Bigarren mailako neska-mutilak jo eta su aritu dira euskaldunok itsasoarekin dugun lotura estua aztertzen.

Ondotxo dakite, euskaldunok itsasgizon trebeak, balea-arrantzale onak eta ontzigintzan maisuak izan garela.

Jakitun dira balearen arrantza oso garrantzitsua zela, eta ugaztun handi horren guztia probesten zutela.

Badakite, ere, gure herri honek itsas gizon handiak eman dituela.

Hau guztia, buru-belarri aztertzean, hara non irakurtzen duten XVI. mendeko San Juan izeneko baleontzia Ternuako uretan ondoratu zela eta honen erreplika ari direla eraikitzen Pasaian, Albaola museoan.

Berehala prestatu dute marinel gaztetxo hauek Albaola bisitatzeko bidaia. Autobusa hartu eta Pasaiarantz abiatu dira *Gora aingura, Jaso oihalak, Guztia istriborrera* oihukatuz.

Pasaiara iritsi orduko joan dira Albaola museora eta hemen arduradunaren azalpenak adi-adi entzun dituzte. Zeinen baleontzi ederra! Guztia ondo ikusmiratu ondoren, txalupa hartu eta berriro *Gora aingura, Jaso oihalak* eta *Guztia istriborrera* oihu eginez, Donibanera joan dira bazkaltzera.

Bapo bazkaldu, itsasertzeko herri hori ezagutu eta etxerantz abiatu dira. Beraiek, ere, egun batez bederen, itsasgizon-emakume sentitu dira. Ahantz ezinezko eguna gure neska-mutil hauena!

Eta piratak zer? Garai haietan sarri egiten zuten topo piratekin eta ez dugu ezer idatzi! Beno, hori beste baterako utziko dugu.



## HAUR ETA GAZTEEN ESKUBIDEEN ALDE / BIZKOTXO SOLIDARIOA CARITASEN ALDE

DBH3ko ikasleek haur eta gazteen giza eskubideak landu dituzte bigarren hiruhilekoan. Munduko hainbat eta hainbat herrialdetan umeek osasunaren alorrean, hezkuntzan eta egunerokoa bizi dituzten egoera desberdinez jabetu dira. Euren lanketa egin ondoren atera dituzten ondorioak LH3-LH6ko gaztetxoei helarazi dizkie, txikienek ere munduaren errealitatea ikusi eta euren bitartekoak gehiago balora ditzaten.



Lanketa horri amaiera emateko, bizkotxo solidarioa egin zuten martxoaren 3an, eta euro baten truke saldu zituzten zatiak atsedean garaian. Diru hori Caritasera bideratu dute, ikasleek inguruan dugun jendeari laguntzea erabaki baitute orainoan, eta ez dago gaizki pentsatua; izan ere, mundua konpontzen hasi aurretik etxe barruko errealitateari pare bat buelta ematea komeni dela aholkatzen baitu esaera txinatar batek ere.

**Boga boga marinela.** L@s alumn@s de 2º de Primaria se convirtieron en marineros por un día. Están estudiando la relación de los vascos y el mar y la importancia de la caza de la ballena. Hace poco han visitado el museo Albaola de Pasai San Pedro, donde se está construyendo la réplica de la nao ballenera San Juan, hundida en aguas de Terranova en el siglo XV. **Bizcocho solidario para Cáritas.** El trimestre se ha dedicado a los derechos humanos en 3º de ESO y se ha centrado en la salud, la educación y el día a día de l@s niñ@s de todo el mundo. L@s alumn@s han compartido sus conclusiones con l@s de 3ª a 6ª de Primaria y han vendido porciones de bizcocho en los recreos, destinando el dinero que han recaudado a Cáritas.



## DISTIRAK ETA ZARTAGINAK

Badatoz! Jantzi koloretsuak, kapela beltzak eta urrearen distirak kaldereroek ekartzen dizkigute. Alai eta kantari zeharkatzen dituzte herrietako kaleak, zartaginean hotsek lagunduta, orkestra bailira. Astoak garraiatutako gurdiak, eta horri kate motzean lotutako hartzak. Horrek ematen dio bukaera ikuskizunari.

Desfilatzeaz gain, zer kontatu eta zer abestu ere badute kaldereroek. Hori dela eta, ikastolara etorri dira ondotoxo ezagutzen duten Zozomikote lapurraz luze mintzatzera LH 1. zikloko haurrekin.

Badirudi, aspaldi-aspaldian, Zozomikote iritsi zela Ordiziara eta herriko bidean antzar eta hartz batekin izan zituen komerietan engainatu zituela ordiziarrak. Lamia esnearekin mozkortu eta urrezko orrazia lapurtu zion. Horrekin konforme ez, eta denbora hankaz gora jarri zuen herriko bazter guztietan lapurtu ahal izateko.

Zozomikote alprojen berri duten bakarrak dira kaldereroak, urre koloreko pertz edo lapikoren bat noizbehinka osten dielako.

## GARAGUNEA BISITATUZ

Hiri Hezitzailea programaren barruan, DBH 4ko ikasleek Garaguneko lokalak bisitatuko dituzte. Sukaldaritzan oinarri bezala hartuta, Garaguneko kideek astean behin beraien bazkaria nola prestatzen duten ezagutzeko aukera izan dugu. Egoera informal batean pertsona desberdinen profilak ezagutzea da helburua; gertu egon eta elkarrekin ekintzetan parte hartuz denon ezaugarriak ezagutzeko aukera izan dugu, eta horrela elkarbitzita sendotzeko urratsak egitea.



## EUSKAL INAUTERIAK

Urtero bezala, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBH 1eko gure ikasleak Ordiziako kaleetara irten dira Euskal Inauteriak ospatzera. Joaldunak, zaku-zaharrak, Miel Otxin, sorginak, txorimaloak, kotilungorriak, baserritarrak, artzain eta inudeak, Luzaideko Bolantak, txori izugarriak, txantxoak... gure herriko kaleak hartuz, kolorez eta alaitasunez bete dituzte Alde Zaharreko txoko guztiak.

Eguraldia, zorionez, ongi portatu da gurekin, eta giro zoragarria izan dugu arratsalde osoan zehar. Horri esker, desfileak herriko kaleak jendez lepo bete ditu eta ikuskizun polit batekin gozatzeko aukera izan dugu. Gurasoekin, aitona-amonekin eta gainontzeko senideekin bete dira

espaloiak, eta gure ikasleak ongi babestuta sentitu dira. Desfilearen ondoren, Joxe Miel Barandiaran plazan amaierako emanaldian, dantza guztiak lasaitasunez ikusteko aukera izan dugu eta txalo zaparrada bikainak entzun ahal izan ditugu.

Zorionak ikasle eta beraiekin lanean aritu diren irakasle guztiei!



## EUSKARAZ BIZI EGUNA

Kirmen Uribe ondarrutar idazleak kontatzen du New York-en zebilela, bere poesia emanaldietako batean, emakume bat hurbildu eta honela esan omen zion: -Begira, Kirmen, atzo zure poesia originalak hartu eta saiatu nintzen irakurtzen ea zerbait ulertzen nuen, horrela zure emanaldira prestatuta etortzeko. Irakurri eta irakurri baina ez nuen tutik ere ulertu. Hala ere, ohartu nintzen idatzi horietan "X" asko agertzen zirela eta iruditu zitzaian zuen hizkuntza altxorren mapa bezalakoa dela. Badakizu altxorren mapetan "X" batez markatzen dela altxorra non dagoen. Aizu, altxor bat daukazu!

Otsailaren 2an *Euskaraz Bizi* eguna ospatu dugu. Guk, gure altxorren kutxa ireki eta herrira irten gara ordiziarrekin gure bitxi distira konpartitzera. Euskararen distira zabaltzera, alegia. Sua bailitzan sentitu dugu euskararen berotasuna eta gozoa, eta hori zabaldu nahi izan dugu herri osoan. Hasiera Plaza Nagusian eman diogu, elkarrekin, eta zuzendariaren agurra jaso dugu. Ondoren, talde bakoitza bere ekintzetara joan da: Barrena Jauregira, AEKren egoitzara, erosketak egitera, jolasera, herri kiroletara, horma-irudiak banatzera... Amaiera emateko Plaza Nagusian elkartu gara, eta pailazoaren emanaldia izan dugu; ondoren dantza, abestiak eta trikitaliak.

**ATERA TXINPARTAK EUSKARARI!!**

**Brillos y sartenes.** Los caldereros han desfilado por las calles de Ordizia con sus vistosos trajes, sus negros sombreros y su brillante oro. También han estado en Jakintza, con I@s alumn@s de 1º, para contarles las aventuras de Zozomikote con el oso, la lamia y el tiempo. **Carnaval vasco.** L@s de Infantil, Primaria y 1º de ESO han celebrado el carnaval con un desfile que ha llenado de color, música, bailes y personajes míticos vascos las calles de Ordizia. La fiesta acabó en la plaza Joxe Miel Barandiaran con una gran actuación final. **Visita a Garagune.** L@s de 4º de ESO participan en el programa Hiri Hezitzailea, que fomenta la convivencia. Dentro de poco visitarán el Garagune para conocer a sus usuarios, que son personas con un perfil muy diferente al suyo. Allí, todos han compartido la hora de la preparación de la comida. **Día Euskaraz bizi.** Cuenta el escritor Kirmen Uribe que una lectora le dijo que el euskara es un tesoro. El 2 de febrero hemos celebrado el día *Euskaraz bizi* y hemos aprovechado para compartir ese tesoro con toda la ciudadanía. La celebración tuvo lugar en la plaza, donde hubo payasos, bailes, canciones y trikítixa. ¡Sácale chispas al euskara!

## START INNOVA

Start Innova ikasleen ekintzaletasuna garatzeko sortu zen lehiaketa da. Bertan, Batxi 1eko ikasleek taldeka parte hartu eta proiektu desberdinak aurkeztu dituzte: aukeratutako leku zehatz bat enfokatzeko argia; autoerregulatzen den berogailu sistema; soinuak neurtzeko erabiliko den semaforoa; eskuak erabili gabe irekiko den atea; eremu desberdinetan txanda eta hitza eskatzeko aplikazio bat eta eskuen beharrik ez duen aterkia. Canvas metodoa erabiliz proiektu horien bidegarritasuna frogatu dute. Lan honetarako Irizar enpresaren laguntza izan dugu, eta ikasleek beraien egitasmoak hantxe azaldu zituzten. Bertan zeudela aprobeztatuz, Irizarkoek ere ikasleei beraien enpresa erakutsi zieten, beraien filosofia eta lan egiteko era azalduz.

Mila esker Irizar enpresari, eta zorte on lehiaketan ikasleei!



## HIZKUNTZAK

Abendutik hona DBH 1eko ikasleek oso lanketa polita egin dute. Hilabete hauetan zehar gure inguruan eta gurekin batera bizi diren hizkuntzak aztertu dituzte.

Helburu horrekin, hizkuntza horiek erabiltzen dituzten zenbait lagun elkarrizketatu dituzte. Horretarako, hainbat solasaldi izan dituzte hizkuntza horietako hitzuneekin. Horri guztiari esker alemaniera, errumaniera, urdua, Brasilgo portugesa, ingelera, katalana eta kohistania gertugotik ezagutzeko aukera izan dute.

Zorionak ikasleei eginiko lanarengatik, eta mila esker euren laguntza eskaini duten guztiei.



## IDAZLE BIKAINAK



Urtero moduan, Beasaingo Udaleko Euskara zerbitzuak Idazlan lehiaketa antolatu du. Otsailaren 27an egin zen sari banaketa ekitaldia Igartza jauregian. Jakintza ikastolako ordezkariak zabala izan zen bertan: saritutako ikasleak, senideak, gurasoak, aitona-amonak eta irakasleak. Kanpoan eguraldi makurra zegoenez, gustora sartu ginen Igartzara. Beti bezain dotore zegoen. Dotorea izan zen baita ere Ekaitz eta Irati Goikoetxeak egin zuten aurkezpena. Aurkezpenaren ondoren, etorri ziren sari banaketak, txaloak eta argazkiak. Aurtengoa ere oso lehiaketa oparoa izan da gure ikastolarentzat, izan ere 8 izan dira saritutako lanak.

Zorionak saridunei eta batez ere animoak eta esker ona partaide izan diren guztiei!

**Start Innova** es un concurso que fomenta el emprendizaje. L@s alumn@s de 1º de Bachi han participado con proyectos como la puerta que se abre sin manos, el sistema de calefacción autorregulable, el semáforo que mide el nivel de ruido... Los proyectos se presentaron en la empresa Irizar, donde les explicaron su filosofía y métodos de trabajo, y les mostraron las instalaciones de la fábrica. **Idiomas.** Desde diciembre se está trabajando el tema de los idiomas en 1º de ESO. L@s alumn@s han entrevistado a varias personas de la zona que les han ofrecido la oportunidad de conocer el alemán, el rumano, el urdu, el portugués de Brasil, el inglés, el catalán y el kohistani. **Brillantes escritores.** El 27 de febrero se celebró en el palacio Igartza de Beasain la entrega de premios del concurso de redacción del departamento municipal de euskara. Entre los asistentes había una amplia representación de Jakintza, incluidos vari@s alumn@s premiad@s por sus trabajos. La ceremonia fue presentada por Ekaitz e Irati Goikoetxea.

## ANTOLAKETA NEUROLOGIKOA

lazko ikasturtean Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan martxan jarri zen programarekin hasi gara aurtengo ikasturtean Haur Hezkuntzan. Izan ere, garapen neurologikoak garrantzia handia du haurren garapen osoan. Hala, 3, 4 eta 5 urteko haurrek astean bitan, ordu erdiz, zenbait ariketa fisiko egiten dituzte:

Adibidez, lurrean, arrastaka, lau hankatan, hanka puntetan, orpo gainetan... ibiltzen dira. Adituen arabera, ariketa horiek garapen ikus-motorrari mesede handia egiten diote.

Horrez gain, eskailera horizontal batean berriz, brakiario ariketak egiten dituzte; beso-hanka eta begi-esku koordinazioak arnasketa hobetzeko balio dute. Horrela, bularra zabaltzen baita eta birrikak garatuz doaz. Idazketarekin zerikusi handia duen esku presioa ere lantzen da.

Azken batean, gorputza eta burua erabat lotuta daude eta gorputza behar bezala askatuta badago eta gure arnas sistema ondo badago, burua ere hobeto dago eta ondorioz, ondo ikasteko prestatuago dago. Eta horixe da denok nahi duguna!



## JAN, JAN ETA JAN

Elikatzearen garrantziaz jabetu nintzen taldeko norbaitek aipatu zuenean, guretzat, gizakiontzat, jatea dela autoari gasolina botatzea bezala. Eta ez zitzaion arrazoirik falta, ez. Jaten ez badugu, edo desegoki elikatzen bagara, ez gara geratuko bat batean hor «kieto parao» ikastolako bidean, ez aurrera ez atzera, baina bai gure gorputza kaltetzen joango da... eta konturatzerako: zerraldo!!! Hori gerta ez dadin, LH1ekook merienda osasungarria antolatu genuen gelan, denetik jan beharko genukeela ikasteko. Ez dakit zuek, baino ni arratsaldero hasiko naiz fruta, ogitartekoak, yogourtak... hartzen, elikagai *superrak* direlako gorputzarentzat. Aitona Floren eta amona Pilarren adinera iritsi nahi dut munduko bazter guztiak miazteko, beraiek egiten duten moduan.



## NEUS SANMARTÍ

Azaroaren 16an eta 23an Jakintza ikastolan izan dugu Neus Sanmartí. Hezkuntza munduan oso pertsona aditua eta ezaguna da, batez ere ebaluazioaren gaia sakon lantzen duelako. Badira urte batzuk, Jakintza ikastolak bere lan ildoan artean ebaluazioarena bereziki nabarmendu zuenetik. Denok dakigu ebaluazioa giltzarri suertatzen dela ikasketa prozesuan. Zer eskatu, hura ikasten dute ikasleek. Ebaluazioa bere osotasunean da interesgarria, ez bakarrik ikuspegi kalifikatiboa, batez ere ebaluazioaren ikuspegi formatiboan sakondu nahi genuelako izan da gure artean Neus.

Azken urte hauetan hainbat urrats eman ditugu norabide horretan, eta sarritan aipatu dugu zein garrantzitsua den ikasleek beren heziketa prozesua autorregulatzea.

Neus Sanmartik bide horretan sakontzeko bere ezagutza eta baliabideak eskaini dizkigu bi egun hauetan eta aukera ezin hobea izan dugu mundu mailan egin dituen ikerketak bertatik bertara ezagutzeko eta kontrastatzeko.

Neusek bereziki azpimarratu digu ebaluazioaren ikuspegi formatiboa, eta zein garrantzitsua den horretan trebatzea. Pauso batzuk eman ditugu, eta ematen ari gara, baina jakin badakigu bide luzea dugula egiteko.



**El programa de organización neurológica** se ha extendido a Educación Infantil. Dos veces por semana, l@s niñ@s de 4 y 5 años realizan ejercicios como arrastrarse por el suelo, andar de puntillas o braquiación, con el fin de desarrollar la coordinación y la respiración, entre otros, y preparar así mejor el cerebro para el aprendizaje. **Comer, comer y comer.** Alimentarse es para el ser humano como echarle gasolina al coche. Si no comemos o comemos mal, nuestro cuerpo se irá resintiendo. L@s de 1º hemos organizado meriendas saludables en clase y hemos aprendido que hay que comer de todo y que las chuches no alimentan. Yo voy a empezar a comer fruta, bocadillos y yogures todas las tardes. A ver si llego a la edad de mis abuelos. **Neus Sanmartí** ha visitado Jakintza. Neus es una experta en el ámbito de la educación y la evaluación es su especialidad. En Jakintza consideramos que la evaluación es muy importante en el proceso de aprendizaje, pero no solo por su aspecto calificativo sino también por su valor formativo. Con la ayuda de Neus, estamos profundizando en este valor formativo. Ya hemos dado unos pasos, pero el camino va a ser largo.



1987. urteko inauteritako argazkia

## IKASTOLAKO OROITZAPENAK


Argazki hau 1987ko inauterietakoa da. Bertan azaltzen direnak 1978an jaiotakoak dira, eta garai horretan 3. mailan zeuden.

Zutik, ezkerretik hasita: Aritz Urretabizkaia , Igor Jauregi, Jon Ander Munduate, Mikel Bergara, Joseba Marin, Aitor Orbegozo eta Asier Garmendia.

Belauneko: Iñaki Leunda, Iban Toledo eta Andoitz Iztueta.

## Bertsoa

Inude ta artzaiak  
izan dira sarri,  
hirugarren mailako  
mozorro pozgarri.  
Honekin nahi genuke  
gogora ekarri,  
aspaldi punkik ere  
zirela etorri  
(A.L)



**jakintza**ikastola

Altamira auzoa z/g  
tfnoa. 943 16 05 40  
20240 ORDIZIA  
www.jakintza.eus  
ordizia@ikastola.net

